



HORTZMUGA TEATROAK
AURKEZTEN DU:

EZ
ZUTEN DIR

IRUSITAKOAA
KOONTATU



ANTZERKI TALDEA

Antzerki Taldearen Definizioa: Zerk Eragiten Digun:	Pag.04
Antzerki taldearen azken ikuskizunak, produkzioak eta sariak	Pag.06
Nazioarteko Jaialdi batzuk	Pag.13
Ekitaldirik nabarmenenak	Pag.14

IKUSKIZUNA

Sarrera	Pag.16
Sinopsia	Pag.19
Gaia: zertaz ari garen	Pag.20
Eszenaratzea	Pag.24
Hizkuntzak	Pag.29
Egoitza Artistikoa	Pag.30
Fitxa Artistikoa	Pag.31
Fitxa Teknikoa	
Argiztapen premiak	Pag.32
Soinu premiak	Pag.33

HORTZMUGA TEATROA Bilboko antzerki taldea da eta 20 urte baino gehiago daramatza jardunean. Epe horretan antzerki ikuskizunen 50 produkzio baino gehiago egin ditu, bai kaleko formatuan eta bai antzokietan, eta horrez gain, erakunde publiko eta pribatuentzat ekintza handiak eta produkzio bereziak diseinatu eta antolatu ditu.

Ibilbide horrek HORTZMUGA TEATROA euskal antzerkiko ehun profesionalean erreferentziazko taldeen artean sendotu du.

HORTZMUGA TEATROA ESKENAKO parte da (Euskadiko Produkzio Eszenikoen Enpresa Elkartuak), eta TE VEO (Haur eta Gazteentzako Antzerki Taldeen Elkarte Nazionala) eta ARTEKALE (Euskal Herriko Kale Arteen Elkarte) elkarteetako kidea da, eta azken horren sortzaileetakoa gainera.

Antzerki Taldearen Definizioa: Zerk Eragiten Digun:

Tripak nahasten zaizkigu gure ingurura begiratzean, eta horregatik, tripetatik, tripak nahastuko dituen antzerkia egin nahi dugu, harrituko duena eta gogoeta egitera bultzatuko duena, ikus-entzuleen kontzientziak astinduko dituen euren kuriositatea esnatuz, publiko hori hunkituko duena, izan ere, esperientzia eraldatzaile bat izateko asmoz begiratzen duela uste baitugu.

Pertsona sortzaile bezala ikus-entzuleek gogoeta egin dezaten behar dugu. Astindu egiten ditugu, hunkitu, harritu eta saiatzeko gara euren begirada eraldatzen, parte hartzearen eta elkarriketa sozialaren bidez. Hunkitzea bilatzen


dugu kontatzeko modu berezi batetik, talde honentzat antzerkia gizarte komunikaziorako eta kritikarako tresna baita. Horregatik Hortzmugaren lanak une bakoitzean gertatzen denera hurbiltzen dira. Gure ingurura begiratu eta egunerokotasuna islatzea antzerki talde honen barne eskaera da.

Lan artistiko zehatza erabiltzen dugu gizarteari ekarpena egiteko elkarrizketa eta gizarte kritika terminoetan. Prozesuetan komunikazio modu berriak sartzen saiatzen gara, antzerki ariketa klasikoek ezartzen dituzten formaltasunetatik urrunduz, eta betiere ikuspegi berri bat ekartzeko asmoarekin, batez ere egia egongo den forma estetiko ezberdin bat. Ikus-entzuleekiko konexioa lortu nahi dugu komunikazio era berriak asmatuz.

Gure helburuetako bat beti izan da antzerki egitura berriak bilatzea, ikus-entzuleari ibilbidea egitea ahalbidetuko diotenak, linealtasunetik eta historiak irakurtzeko edo sortzeko ohiko prozesuetatik aldenduko direnak. Izan ere, azken helburu bezala ikus-entzulea dago, antzerki egintzara joaten denaren esperientzia, eta gauzak ikusteko zeukan era neurri txikian baina modu funtsezkoan behin betiko eraldatu zaion sentsazioarekin alde egiten duena. Hortzmugarentzat proiektu berri bakoitza abentura bat da, bidaia bat artisau jendeaz inguratzen garena, musika egiten duten artisauak, eszenografiak eraiki, testuak idatzi, formak eta moduak sortu, pertsonaiak edo gauzak irudikatu, argiekin marraztu, soinuak fabrikatu... azken finean, jolastu egiten dutenak.

Hortaz, Hortzmuga Teatroak egiten duen antzerkia modu honetara defini genezake:

Eskulangintzazko antzerkia, komunikazio era berriak gizarte tresna eta kritika modura erabiltzea bilatzen duena, gogoetara eta astintzera irekita.

Antzerki taldearen azken ikuskizunak, produkzioak eta sariak:***Rekolore (2001)***

Vila-Realeko Kale Antzerkiaren Jaialdian Ikuskizun Onenaren saria herritarren bozketaz.

***Klaketa (2003)***

**Matraka (2003)**

Leioako Kale Artisten Ferian Umore Azoka 2003 saria
EUSKAL IKUSKIZUN ONENARI.

**12K (2004)**

Fira Tarregarekin batera egindako produkzioa.

ANTZERKI TALDEA

Zirko Iluna (2005)



Eva vs. Eva (2006)



Consules de la Calle: Memento (2006)

koprodukzioa Viladecans-eko Kale Antzerkiaren Jaialdian.



Superplast (2007)

Max 2009 saria Euskarazko Antzerki Egile Onenari.




Metro Bateko Ametsak (2008)

(Sueños de Un Metro)



Olympikas 2012 (2009)



La Espera: nadar de noche (2010)

Arriaga Antzokiarekin batera egindako produkzioa.



Libertia (2010)

ANTZERKI TALDEA

Ella, La Espera (2012)



Ni han izan nintzen eta ez zuten nik ikusitakoa kontatu (2012)

Nazioarteko Jaialdi batzuk:

- Nizako inauteria (Frantzia) "REKOLORE" (2001/2005).
- Edinburgh Hogmanay (Edinburgon urte berriaren ospakizuna) "REKOLORE" (2002).
- Libourne (Frantzia) "12K" (2002).
- "Burns and All That" Jaialdian parte hartzea – 2003. Glasgow. "Rekolore".
- Mediterraneoko Topaketak Beziers-en (Frantzia) "12K" 2005.
- Palmelako Titere Erraldoien Jaialdia (Portugal) "Rekolore" 2005.
- Milaneko Inauterien itxiera. Rekolore 2007.
- Feta-Miedzynarodowy Festival Teatrow Plenerowych Ulicznych. "Consules de la calle: MOMENTO" 2008.
- Nazioarteko Antzerki Jaialdia Holzminden-en (Alemania) "Consules de la calle: MOMENTO" 2009.
- Nazioarteko Antzerki Jaialdia Aubagne-n (Frantzia) "Consules de la calle: MOMENTO" 2009.

Ekitaldirik nabarmenenak:

- GASAREN ETA TEKNOLOGIAREN NAZIOARTEKO 21. KONFERENTZIAren (GASTECH 2005) irekiera ikuskizuna.
- Metro Bilbaoren inaugurazio ikuskizuna (2005).
- Bilboko Euskalduna Jauregiaren X. Urteurrenaren ikuskizuna, 2009.
- Bilboko Udaleko Turismo Sailarentzat LOS ANFITRIONES ikuskizunaren diseinu artistikoa, zuzendaritza eta sorkuntza, 2011.
- Olentzero eguneko ospakizun ikuskizunaren diseinua, zuzendaritza eta sorkuntza Bilboko Udalarentzat eta ETBrentzat. 2008tik 2012ra.
- AGUR MARIJAIA ikuskizunaren diseinua, zuzendaritza eta sorkuntza Bilboko Udalarentzat eta Bilboko Konpartsentzat 2009tik 2011ra. Bilboko Jaien amaierako ikuskizun jendetsua.
- Eta bihar...Zer? Fundacion 2012-k antolatutako 'Bakearen eta Askatasunaren aldeko Kulturen Urtea'-ren barnean, Traspasos Kultur eta Gaitzerdi Teatro antzerki taldeekin batera ekoiztutako ikuskizun handia.



The background of the entire page is an abstract composition of concentric circles in shades of teal and dark blue. Overlaid on these circles are several stylized, jagged yellow lightning bolts. In the lower-left quadrant, a black silhouette of a radio tower or antenna is visible, pointing towards the center of the circles.

IKUSKIZUNA:

- Kale antzerkiko ikuskizuna, gauekoa, helduentzat eta 60 minutuko iraupenekoa.
- Antzerki esperientzia hiritarra. Ikus-entzule subjektiboak, ikus-entzule aktiboak. Teatroa bizi-bizian.
- Egitura balioanitzak, argitasunaren eragileak, gune eta irudien sortzaileak.
- Kale antzerki garbia eta gaurkoa.
- Antzerki taldeak politikari eta komunikabideen erabilpenari buruz duen ikuspegi kritikoa eta pertsonala.
- Hortzmuga Teatroaren sorkuntza originala kalerako eta gune berezietarako.

**GERTAERAREN GAUEAN
HURA JAZO ZEN GAUEAN
DENA ALDATU ZEN GAUEAN
PENTSATU GENUEN EZIN ZITEKEELA EZER EGIN
ZUR ETA LUR GERATU GINEN
TXUNDITUTA**

...

**BIHARAMUNEAN
ALBISTEA
IRAKURRI ONDOREN
DENOK ATERA GENUEN ONDORIO BERA.
NI HAN IZAN NINTZEN ETA...**

EZ ZUTEN NIK IKUSITAKOA KONTATU.

IKUSKIZUNA



Sinopsia:

Protagonista bakarreko ikuskizuna: **ALBISTEA**.

Eztanda bat gune publiko batean, hildakoak eta zaurituak eragiten dituen; Nahasmendua eta kaosa; Komunikabideek informatu eta desinformatu egiten dute; Atxiloketa bat eta ustezko errudun bat; Ekintza horren erabilera politikoa eta partidista; Egia ofizial baten eraikuntza, botereari laguntzen diona herritarren artean alerta eragiten duelako eta lortzen duelako horren gardenak ez diren beste gai batzuetatik arreta aldentzea; Komunikabideek ez dute egia ofiziala zalantzan jartzen; Sare sozialek beste errealitate bat erakusten dute, zentsuratua izaten dena; Epaiketa soziala eta mediatikoa; Azkenean, beste albiste bat, beste egun bat, beste gol bat, ez da ezer gertatzen, Champions-ak jarraitu egiten du.

“Egia”, gehienetan bezala, gauza gehienak bezala, gutxi bazuena da eta beste behin ere guri ez digute kontatu...

Gaia: zertaz ari garen:

“Ni han izan nintzen eta... ez zuten nik ikusitakoa kontatu” lanak BOTEREAREN, POLITIKAREN eta KOMUNIKABIDEEN arteko harremanaz ari da. Kontua da erakustea nola azken horiek bihurtu diren gu denok makurrarazteko tresna beharrezko eta ezinbestekoak. Kontua da erakustea nola komunikabide horiek eraikitzen dizkiguten egia ofizial handiak, nola manipulatzeko dituzten datuak, nola egiten dituzten gertatzen denaren interpretazio interesatuak, nola sortzen dituzten ke lainoak boteretsuen interesak kaltetuak gerta ez daitezen...

“Ni han izan nintzen eta... ez zuten nik ikusitakoa kontatu” albiste batek bere sorreratik hedatua/jasoa den bitartean egiten duen bidaia edo ibilbidea da.

“Ni han izan nintzen eta... ez zuten nik ikusitakoa kontatu” albiste baten historia da, nola bihur daitekeen mehatxu tragiko eta arriskutsua.


Gai honek, komunikabideek albisteekin egiten duten manipulazioak, sakonki ukitzen gaitu, hau da, tripetaraino iristen zaigu eta zerbait esan beharrean gaude horri buruz. Antzerkia komunikatzeko modu bat da, eta mezu hau eta beste batzuk ahalik eta jende kopuru handienari helarazteko gure tresna da.

Seguruenik ez dugu ezer berririk esango, baina gertatzen denari buruzko gure ikuspegia eman nahi dugu, **“Ni han izan nintzen eta... ez zuten nik ikusitakoa kontatu”** ikusten dutenak identifikatuta senti daitezen eta kontatzeko moduaren ondorioz “nahastuak”.


Litekeena da denok egon izana noizbait inplikaturik albisteren batean, ondoren komunikabideetan manipulaturik ikusi duguna. Informazioa hor dago, baina bilatu egin behar da, dena egina ematen diguteneko erosotasunetik atera behar gara, eta bilatu, ordenatu eta bahetu, benetan gertatu denari buruz ideia bat egiteko.



IKUSKIZUNA



IKUSKIZUNA



Eszenaratzea:

“Ni han izan nintzen eta... ez zuten nik ikusitakoa kontatu” hiriko antzerki esperientzia da, ikus-entzulea eserita egongo den formatuetatik ihes egiten duena. Guk “antzerki ezerosoa” bezala izendatzen duguna egiten dugu, jende aktiboarentzat, horrela ulertzen dugulako kalea eta kale antzerkia, harrapatzen eta irensten zaituen esperientzia intelektual eta fisiko baten modura, bukatzen denean zerbait aldatu dela sentitzeko, bai espazioan eta bai ikus-entzulearengan berarengan.





- espazio aldakor bat, hiru egitura mugikor balioanitzekin, bost antzezle, hiru teknikari eta publiko bat.



-egiturak: argiaren eragileak, guneen eta irudien sortzaileak, beren kokapenaren arabera eszenetara irekiago dagoen gun bat eraikitzen dutenak, ikus-entzuleak haien parte direla, gun itxiak urrutitik begiratzeko, eta baita ikus-entzuleenganako inbasioa ere. Horren guztiaren asmoa da eszena bakoitzari dagokion begiratzeko modua ematea, intimoagoa den zerbaitetik hasi eta erabateko kontakturaino edo urruntzeraino. Kontatzeko modu oso ezberdinak ahalbidetzen dizkiguten hiru egitura, eta uneoro harritzea lortzen dutenak, baita nahasmendua eragitea ere, komunikabide batzuek albisteekin egiten duten moduan.



IKUSKIZUNA



IKUSKIZUNA



IKUSKIZUNA

-Ikus-entzuleak: gune eszenikoaren barnean kokatzen dira eta gertakizunak lehen pertsonan bizi dituztenak beraiek da. Antzezleekin batera bizi da. Mugitu egiten da eta mugiarazi egiten zaio. Engainuaren parte da eta egia bilatzen du. Albistearen parte da eta era berean inork ikusten ez duena ikus dezake. Gertakizunak berreraikitzen ditu eta bukaeraren partaide da. Dena dago pentsatuta azkenean ikus-entzuleak beraiek, pertsona bakoitza, erabaki dezaten zer ikusi duten eta beren ondorioak atera ditzaten.



Hizkuntzak:

“Ni han izan nintzen eta... ez zuten nik ikusitakoa kontatu” proposamena da funtsean, inguratzen gaituzten soinu guneen erabilera egokiarekin, eta daukan testu urria, beti off-eko ahotsean, edozein hizkuntzatan dago eskuragarri.



Egoitza Artistikoa:

Egoitza Luhuson (Lapurdi), Harri Xuri eta Euskal Kultur Erakundearen ondoan 2012ko martxoaren 19tik 31ra. Antzerki taldearen I+G egitea eta ikuskizunerako sorkuntza laborategia.

Bi lan aste hauen helburua da proiektuan erabat murgiltzea. Goizak antzezlearen entrenamenduari eskaini zitzaizkion, eta arratsaldeak lan bereziagoak eta argia, espazioa eta antzezleak espazioan ikertzerak, baita mugimendu eszenikoaren diseinuari ere.

Fira Tarregako Sorkuntzarako Euskarrien Programaren baitako egoitza 2012ko abuztuaren 1etik 13ra. Fira Tarregak sortutako programa, sortzaileei tresnak eskaintzen dizkiena beren ikuskizunak ekoiztu eta merkatuan lekua hartu ahal izateko. Hautatutako antzerki taldeei laguntza koprodukzio ildo ezberdinen bitartez egiten da, bai sorkuntza laborategien bidez, bai nazioarteko koprodukzioen bidez, bai egoitza sortzaileen bidez, HORTZMUGA TEATROAREN kasuan bezala. Programa horren barruan hautatua izan den Euskadiko lehen antzerki taldea izan gara, "Ni han izan nintzen... eta ez zuten nik ikusitakoa kontatu" lanarekin, originaltasun sortzaile handiko ikuskizun bezala. Egoitza horretan egin zen ikuskizunaren azken fasea eta ikus-entzuleentzako emanaldi ireki bat egin zen.

Fitxa Artistikoa:

Antzezleak:

Arantza Goikoetxea, Nabar Zarraga, Aritza Rodriguez;
Gustavo Gorosito, Iñaki Aginaga.

Teleberrien aurkezlea: Alex Antunez.

Off-eko ahotsa: Gabriel Ocina.

Soinu teknikaria eta Soinuaren mundua: David Otaegi.

Argiztapena: Javier Garcia.

Bideoa: Aitziber de Urrutia-Zioarraga

Eszenografiaren diseinua: Oscar de Paz.

Eszenografiaren eraikuntza: Antigua&Barbuda (Gerard Tubau, Oscar de Paz).

Jantzien diseinua eta prestaketa: Iban Lopez

Diseinu grafikoa eta Bideoen errealizazioa: Iñigo Maestro.

Musika konposizioa: Shanti Basauri y Rafa Rueda.

Eszenaren Zuzendaritza: Raúl Cancelo.

Zuzendaritza laguntzailea: Izpiñe Soto.

Produkzioa: Teresa Gutierrez Zabalza.

Dramaturgia: Hortzmuga Teatroa

Fitxa Teknikoa:

PERTSONALA ITZULIAN: 9 lagun (5 antzezle, 3 teknikari, antzerki taldearen zuzendaria)

Antzezpenaren gunea gutxi gorabehera 30 x 30 m-ko koadro hutsa izango da.

Argiztapen premiak:

- 1 Kw-ko 12 Pc osoak, palekin eta segurtasun katetxoekin.
- 1 Kw 18/32-ko 4 errekorre.
- 2 Pare 64, 2. zk.
- 1500 w-ko 2 strobo.
- Segimendu kainoi bat (gutxienez 575 MSDkoa) 11/28 angeluduna eta antzezpenean bertan filtroak aldatzea ahalbidetzen duena (3 ezberdin).
- 2,5 Kw-ko 24 dimmer kanal.
- Argiztapenaren kontrol mahaia, gutxienez 24 kanal programagarritakoa (submasterrak).
- 2 argiztapen dorre 5 m altukoak, bakoitzak gutxienez 6 zirkuitu dituela eta bakoitzean gutxienez 6 foku zintzilikatze aukerarekin.

- Antzezpen gunea gutxi gorabehera 30 x 30 m-ko koadroa izango da. 2 dorreak ertz banatan joango dira eta kontrako aldearen erdialdean gutxi gorabehera kontrola eta dimmer-a egongo dira.
- Gainerako proiektoreak kontrolaren gunean egongo dira (kable luzera nahikoa aurreikusi behar da).

Argindarra hartzeko lotunea 380v+neutroa+lurreko 3 fasedun 5 poloko cetac bat izango da.

Soinu premiak:



- 4 bozgorailu dBTechnologies DVX DM15 (15" + 1,5", 130 dB) fullrange biamplifikatuak.
- 4 bozgorailu Martin Audio azpibaxuak S18 (18 ", 130 dB).
- Anplifikagailua azpibaxuetarako.
- 4 kable seinalea-argindarra autoanplifikatuetakoko 25-30 m-koak + 2 kable XLR-XLR 25 m-koak.
- 4 karga kable azpibaxuetarako 25-30 m-koak + karga zubiak.

***Soinu material hau ez da derrigorrez marka horietakoa izan behar, baina bai antzekoa.**


Argindar hartunearen aurreikuspena bi zuzeneko izango da, 5.000w-ko potentzia jasateko modukoak.

- **Muntatzeko denbora:** 5 ordu
- **Desmuntatzeko denbora:** 3 ordu
- **Audio proba:** 2 ordu emankizuna baino lehen
- **Argien proba:** 2 ordu emankizuna baino lehen
- **Janzteko gela:** 8 lagunentzat, dutxa eta guzti, emanaldiko gunetik gertu.
- **Ibilgailuen matrikulak eta ezaugarriak:** Iveco Karrozatua. Matrikula: 3801CWW. 7 eserlekuko kamioi ibilgailua, 3.500 Kg-koa. Muntatzeko eta desmuntatzeko gunean kamioi horrentzako aparkalekua behar da (7 metro).
- **Behar diren laguntzaileak:** 2 lagun, zamaletan laguntzeko bai muntatzean eta bai desmuntatzean.
- **Emanaldian zehar kale argiteriak itzalita behar du.**
- **Babeserako 10 hesi.**
- **Antzerki taldea iristean argiketari bat elektrizitatea hartzeko.**

No lo contaron
como yo lo vi.
Hortzmuga teatroa



IKUSKIZUNA



 **HORTZMUGA**
TEATROA
www.hortzmuga.com

Babestua:



-ko partaidea:



Koprodukzioa:



Laguntzailea: